

Luzeak esta beroak izan dira benetan ekainaren 22, 23, 24 egunak GIKA OBB-ko kadeteentzat Madrila joan ziren SOFTBOL-eko CADETE EMAKUMEEN TXAPELKETA JOKATZERA. Partiduak, Rivas Vaciamadrid-ko kirol zelaian jokatu ziren.

Parte hartu zuten taldeak:

A TALDEA:

- PROJETE SOFT GAVANENC (GAVA/BARCELONA)
- ANTOCHA-CEU SAN PABLO (VALENCIA)
- KRAFFT ATL SAN SEBASTIAN (DONOSTIA)
- AMARA (DONOSTIA)

B TALDEA:

- HERCULES L'HOSPITALET (L'HOSPITALET/BARCELONA)
- GIKA OBB (ORIO)
- ORDIZIA (ORDIZIA)
- DRIDMA RIVAS CDAD. DEPORTE (RIVAS VACIAMADRID/MADRID)

Gazteak, gutxienez partidu bat irabazteko ilusioarekin joan ziren.

Lehenengo partidua Ordiziaren aurka jokatu zuten partiduaren hasieran oriotarrak argi utzi zuten Madrila ez zirela joan debora pasa. Lehenengo sarreran berdinketan joan ziren, baina urduritasuna akats batuk eginarazi zien Ordiziarrak akatsetaz aprobetzatuz irabazi egin baitzioten, partiduaren amenera 10-4a iritsi zen Ordiziaren alde baina emaitza honek GIKA OBB oriotarrak kikildu beharrean piztu egin zituen.

Izan ere Ordiziako taldea behateatzeko gai izateaz gain aurre ere egin zioten. Horrela jokatu zituzten 3 sarreretan egin daitezkeen 21 karreretatik 10 baino ez zizkioten egin. Bigarren partidua, Dridmaren aurka jokatu zuten arratsaldeko sei eta erdietan. Lehen sarreran Madrildarren aldekoak ziren bi karrerekin oriotarrek bakarrik bazuten ere, 2. sarreran 7-4koa izan zen GIKA OBB ren alde. Benetan partidu zoragarria izan zen oriotarren aldeko 15-8 emaitzarekin amaitu zen.

Larunbatean goizeko 10etan oriotarrak HERCULES L'HOSPITALET, Herculesek, lehenagotik Dridmaren aurka galdu egin zuen, beraz horrek indarra eman zion oriotarrei. Gozatzeko aukera paregabea izan zuten oriotarrek: 5-0, 7-0 eta 1-4a izan ziren hiru zatiak, beraz 13-4ra amaitu zen partidua, oriotarren alde.

Egun honetan bertan finaletako gurutzaketak jokatu ziren ORDIZIA-AMARA eta PROJETE SOFT GAVANENC-**GIKA OBB**.

Gure neskek ez zeuden prestatu PROJETE bezelako talde bati aurre egiteko izan ere beraien uztez ezin zioten horrelako talde bati aurre egin eta horren ondorioz beldurrez eta kikilduta zalairatu ziren.

Horrela bada, partiduaz ez zuten bat ere disfrutatu eta galdu egin zuten. Partidu ameneran entrenatzaileekin ezan zuten elkarrizketaren ondoren ulertu zituen garrantzizkoena disfrutatze delako. Hori horrela danean, dena askoz hobeto ateratzen baita.

Ekainaren 24ean, igandea, goizako 10:30etan 3 edo 4. postua jokatu zuten GIKA OBB eta AMARA gipuzkoar taldeak. Kasu honetan gure neskek argi zuten disfrutatze joan zirela eta horrelaxe izan zen. Aurrez hobeagoa zen taldearen aurrean orioko jokalariei argi utzi zuten ez zeukatela galtzeko inongo asmorik eta 5-2, 1-0, 6-1 eta 3-0 egin zituzten zati desberdinek. Beraz 15-3 rekin iritsi ziren amaierara eta horrela 3. postua

eskuratu zuten. Espainako Txapelketan garaipen hauekin lortutakoak txunditurik utzi zituen guztiok, eta guztiok esatean taldekideaz gain beste Ekipo guztiak ere esan nahi da.

Benetan harrigarria baitzen lortutako postua eta txapelketako taldeen gazteenak “el equipo revelación” izatea lortu zuen.

Jarraipena nahi izan ezker “erderaz” bidalia dago (barkatu).